

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak egiteko prozeduran herritarrek parte hartuko dutela bermatzeko, ordenantza-proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Bertan, etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen subjektuen eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

1.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

1996ko Gizarte Zerbitzuen Legean ezarritako lege-esparruaren arabera onartutako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren egungo udal-erregelamenduak azken urteotan izan diren lege-aldaketa garrantzitsuetara egokitu behar du.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak eragin nabarmena izan du gizarte-zerbitzuen eremuan.

Zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat antolatu eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan herritar guztiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide subjektiboa bermatzeko, sistema hori baliatzeko baldintza orokorren eta prestazio edo zerbitzu bakoitzerako arautzen diren berariazko sarbide-baldintzen esparruan, eta horretarako:

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzen du, eta horien artean sartzen du Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua, udalei esleitu baitzaie eskumen zerbitzu hori hornitzeko eskumena.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con el objetivo de garantizar la participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas, con carácter previo a la elaboración del proyecto de ordenanza, se sustanciará consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

1.- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

El actual reglamento municipal del Servicio de Ayuda a Domicilio aprobado en base al marco legal establecido en la Ley de Servicios Sociales de 1996, requiere una adaptación a los importantes cambios legislativos que se han producido en los últimos años.

La aprobación tanto de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de Autonomía personal y Atención a las personas en situación de dependencia, como de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, han tenido una repercusión notable en el ámbito de los servicios sociales.

En concreto la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, ordena y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía de acceso a las prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, dentro del marco de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulen para cada prestación o servicio, y para ello:

En su artículo 22 define el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, entre los que incluye el Servicio de Ayuda Domiciliaria, cuya provisión es competencialmente atribuida a los ayuntamientos.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatuz, aipatutako eskubide subjektiboa mugatzen du, eta Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan ezarritako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzen ditu.

Arau-aldaketa horiez gain, gizarte-errealitateak ere bilakaera bat izan du; adineko pertsonen hazkunde demografiko progresiboa, bizi-itxaropena handitu delako eta gure gizartean adin-piramidea aldatu delako; familia-harremanak aldatu egin dira, babes-eragile gisa, eta gizarte-zerbitzuak garatu dira. Horiek dira bizitza bete bermatzeko eragin handia duten faktoreetako batzuk, are gehiago mendetasun-maila larria denean eta gizarte-babesa falta denean.

Adineko pertsonak behin eta berriro adierazi dute ahalik eta denbora gehien egon nahi dutela beren etxean, beren bizitza guztian izan duten erreferentziazko gizarte-sare hori galdu gabe; eta horrek, jakina, lehentasuna du pertsona horiei beren mendekotasunak aurrera egin ahala eman behar zaizkien zerbitzuei buruz hausnartzeko eta horiek zehazteko garaian. Horrez gainera, ordea, badira beste alderdi asko ere (etxe ingurua, sarbideak, komunitatean diren laguntza zerbitzuak eta abar) nahitaez kontuan izan behar direnak, alderdi horiek besteen beharra duten edo ezintasunen bat duten pertsonen bizi-garapena baldintzatzen eta zehazten baitute.

Mendetasun-egoeran edo mendetasun-arriskuan dauden pertsonen arreta emateko beharrezkin batera, gizarte-egoera konplexuak sortzen ari dira, eta badira ahulezia-egoeran edo gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden pertsonak edo familiak, etxeko laguntza behar dutenak oinarrizko arretaren beharrei erantzun ahal izateko.

El Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en desarrollo de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, delimita el derecho subjetivo mencionado, regulando las condiciones, criterios y procedimientos de acceso a las prestaciones y servicios establecidos en el catálogo de la Ley de Servicios Sociales.

Además de dichos cambios normativos, también se ha dado una evolución en la realidad social; el aumento demográfico progresivo de las personas mayores, debido al aumento en la esperanza de vida y a la modificación de la pirámide de edad en nuestra sociedad, además del cambio en las relaciones familiares como agentes de protección y del desarrollo de los servicios sociales. Son ellos algunos de los factores que están impulsando la definición de los servicios necesarios para garantizar una vida plena, aún más en niveles graves de dependencia y de falta de apoyo social.

La voluntad reiterada de las personas en permanecer el mayor tiempo posible en su propio domicilio, manteniendo la red social de referencia que ha tenido a lo largo de toda la vida, es algo prioritario en la consideración y determinación de los servicios de apoyo a estas personas en su progresiva dependencia. Pero el entorno domiciliario, sus accesos, los servicios de apoyo en la comunidad, etc. exigen la toma en cuestión de muchos aspectos que condicionan y determinan las posibilidades de la persona en el ejercicio de su desarrollo vital.

Junto a esa necesidad de dar atención a las personas en situación de dependencia o en riesgo de dependencia se están generando situaciones sociales complejas, y existen personas o familias en situación de fragilidad o vulnerabilidad social, que precisan ayuda domiciliar para poder responder a sus necesidades de atención básica.

Horrela, eguneroko bizitza eramangarriagoa egiteko babes- eta laguntza-zerbitzuak edo -elementuak izateaz gain, ezinbestekoa da mendetasun-egoeran dauden edo gizarte-hauskortasuneko eta -kalteberatasuneko egoeran dauden pertsonak beren etxean eta beren komunitatean artatzeko zerbitzu bat izatea, premia askotarikoetara egokitzeko modukoa eta denboran zatitzeko modukoa, larrialdiko esku-hartzeak bere gain hartuko dituen eta zerbitzuaren premiaren aldaketei arin erantzun ahal izango diona. Ildo horretan, etxez etxeko laguntzak garrantzi estrategikoa izaten jarraitzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, sostengua ematen baitio norberaren bizitzari eta familiako elkarbizitzari. Izan ere, sostengu hori ezinbestekoa da pertsona askoren bizikaltaterako eta lana eta familia uztartzeko, bereziki, emakumeentzat. Erabiltzaileek eta beren inguruak -famiak zein auzokideek asko baloratzen duten zerbitzua da, eta pertsona askoren bizi-kalitatea bermatzen du (adinekoak, mendetasun egoeran dauden pertsonak, familia-zama handia duten pertsonak).

Gaur egun, Pasaiako gizarte-zerbitzuen esku-hartzea pertsona ardatz duen eredu baterantz bideratzen ari da. Eredu horretan, pertsona da esku-hartzearen ardatza, eta bere bizi-planaren diseinuan aktiboki parte hartzen du.

Bestalde, erregelamendu honetan jasotzen dira Gipuzkoako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Mahaian 2017an adostu zituzten akordioak, alderdi hauei dagokienez: intentsitate malguagoak finkatzea, zerbitzua urteko egun guztietan modu mugatuan eskaintzeko aukera ezartzea, urgentziazko sarbidearen modalitatea finkatzea eta profil desberdinetako sarbidea jasotzea.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren araudiak ez du baztertzen Administrazio honetan laguntza pertsonaleko beste zerbitzu batzuk abian jartzeko aukera, pertsonen eta haien bizi-premien arteko oreka lortzeko berritzaileak izan daitezkeenak, betiere

Así, además de disponer de servicios o elementos de protección y asistencia para hacer la vida diaria más llevadera, es imprescindible tener un servicio para atender en su propio domicilio y en su propia comunidad a las personas en situación de dependencia o que estén en situación de fragilidad y vulnerabilidad social, adaptable a las necesidades más variadas y fraccionable en tiempos, que asuma intervenciones de urgencia y que pueda responder ágilmente a las modificaciones de la necesidad del servicio. En este sentido, la ayuda a domicilio es un servicio que sigue teniendo una importancia estratégica en el Sistema Vasco de Servicios Sociales para proporcionar apoyos para la convivencia personal y familiar en un contexto en el que estos apoyos son imprescindibles para la calidad de vida de muchas personas y para la conciliación de la vida familiar y laboral, particularmente en el caso de las mujeres. Es un servicio muy valorado por las personas usuarias y por el resto de su entorno familiar y vecinal, que garantiza la calidad de vida de muchas personas (personas mayores, personas dependientes, personas con cargas familiares importantes).

Actualmente el modelo hacia el que se dirige la intervención de los servicios sociales de Pasaia es el modelo centrado en la persona, donde la persona es el eje de la intervención y toma parte activa en el diseño de su plan de vida.

Por otro lado, en este reglamento se recogen los acuerdos que, durante el año 2017, los ayuntamientos del Gipuzkoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa acordaron en el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales, en aspectos como fijar intensidades más flexibles, establecer la posibilidad de ofrecer el servicio, con carácter limitado, durante todos los días del año, afianzar la modalidad de acceso urgente y recoger el acceso de perfiles diferentes.

El reglamento del servicio de ayuda domiciliaria no excluye la posibilidad de poner en marcha en esta Administración otros servicios de asistencia personal, que puedan resultar novedosas para lograr un equilibrio entre las personas y sus necesidades vitales;

eskumena duen organoaren oniritzia badu.

Horrela, bada, udal erregelamendu honek pertsonak etxez etxeko laguntzako udal zerbitzura sartzeko prozedura arautzen du, pertsona horiek baloratu ondoren, zerbitzua jasotzeko eskubidea aitortu zaienean eta arreta pertsonalizatuko plan bat egin denean.

2.- Arau horren onespeneren premia eta egokitasuna.

Batetik, beharrezkoa da araudia egungo legeetara egokitzea eta, bestetik, beharrezkoa da etxeko laguntza zerbitzua sustatzea, berriz diseinatzea eta hobetzea. Bada, behar horiek kontuan izanik, araudi berri bat onartzea proposatzen da, zerbitzuak egun dituen erronkei aurre egiteko eta, horrela, udalerriko biztanleriaren mesedetan, zerbitzuaren estaldura handitzeko.

3.- Araudiaren helburuak.

Araudiaren xedea da Pasaiaiko udalerriko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzea, udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskumenen baitan.

4.- Araudi bidezko eta Araudiz besteko zer beste irtenbide izan daitezkeen.

Zerbitzua jadanik arauturik dago Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan; beraz, kasu honetan modurik egokiena da bermaturiko zerbitzu hori eguneratzea eta garatzea.

5.- Ekarpenak egiteko epea

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek, nahi izanez gero, goian adierazitako alderdi horiei buruzko ekarpenak egin ditzakete, posta elektronikoko honen bitartez:

gizartekintza@pasaia.net

Epea: 15 egun baliodun, kontsulta hau webgunean argitaratzen denetik

siempre que se cuente con el visto bueno del órgano competente.

Así pues, este reglamento municipal regula el procedimiento de acceso de las personas al servicio municipal de ayuda domiciliaria, una vez que dichas personas han sido valoradas, les ha sido reconocido su derecho de acceso al servicio, y se ha elaborado un plan de atención personalizada.

2.- La necesidad y oportunidad de su aprobación.

Teniendo en cuenta, por una parte, la necesidad de adecuar el reglamento a las legislaciones actuales, y, por otra, la necesidad de impulsar, rediseñar y mejorar la prestación del Servicio de Ayuda Domiciliaria, se propone la aprobación de un nuevo Reglamento para hacer frente a los retos que se plantean actualmente en el servicio, con el fin de posibilitar una mayor cobertura en beneficio de la población del municipio.

3.- Los objetivos de la norma.

El objetivo es regular la prestación del servicio de ayuda al domicilio en el municipio de Pasaia, en el marco de sus competencias en materia de servicios sociales.

4.- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Este servicio ya está regulado en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y se considera que lo más apropiado es la actualización y desarrollo de esta prestación.

5.- Plazo de aportaciones

Los/las ciudadanos/as, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones y aportaciones sobre los aspectos planteados a través del siguiente buzón de correo electrónico: gizartekintza@pasaia.net

Plazo: 15 días hábiles a partir de la publicación de esta consulta en la web.